

Errealitate bihurtutako amets baten iragana eta oraina



Argazkia: Estudio Gover

Haizea Sendón Alarde Publikoko Santiago konpainiako kantinera izango da 2019 urtean. Oihana Picosok, berriz, duela 20 urte kantinera gisa alarde publikoan lehen aldiz parte hartzeko aukera izan zuen. Elkarrekin kantinera izateak dakartzan emozioak eta zereginak errepasatu dituzte.

Haizeak hitz gutxi behar ditu aurrean Alarde Publikoan kantinera gisa ateratzeko eragiten dizkion emozioak adierazteko, izan ere, begien distira bereziak eta aurpegiatik desagertzen ez zalon irribarreak argi eta garbi erakusten dute. "Kantinera izatea errealitate bihurtutako ametsa da niretzat". Kantinera izango zelaren berri ona etxean familiarekin zegoela jaso zuen.

Oihana Picosi, ordea, gauza asko etortzen zaizkio burura kantinera bezala desfilatu zuen urtea oroitzarazkoan. Picosok azaldu duenez, "deskubrimendu bat izan zen niretzat alardea lehen aldiz barnetik bizitzea". Ordura arte alardea ondo ezagutzen zuela uste zuen Oihanak, baina, esperientzia horren ostean, alardea bizitzeko modu ezberdin bat topatu zuen. Bigarren alardea eta garai nahasiak izan arren, Oihanak famili eta lagunengandik berotasun handia sentitu zuela gogoratzen du. Gainera, alardeari esker jende berri asko ezagutzeko aukera izan zuela aipatzen du ere.

Kantinera izateak prestaketa-lan eta zeregin ugari dakartzan arren, Haizeak egin behar guztiak kontrolpean dauzkala baieztatzen du pozik. Zeregin horietan laguntzeko Kantineren Komizioak lan garrantzitsua egiten du urtero. Oihana, kantinera izan ostean, Kantineren Komizioan laguntzaile gisa aritu zen zenbait urteetan zehar. "Kantinerari berotasuna eta aholkuak ematen dizkiegu bertan, jantzien prestaketa-ekin laguntzeaz gain". Kanti-

neren Komizioarekin izandako azken bileraren ostean, Haizeak kantinera jantzia eta barrika etxean dauzka jada.

Ekainaren 28an Oihana eta Haizeak berriro elkar ikusteko aukera izango dute. Izan ere, 2019ko alardeko kantinerak aurkeztuko dira egun horretan eta, aurreko urteetan bezala, Oihana Picos aurkezle lanetan arituko da. Egundorren inguruan Oihanak azaldu du, "niretzat opari bat da egun hori ikuspuntu horretatik bizitzeko aukera izatea, plaza beteta ikusi eta jendearen aurpegietan emozioak nola islatzen diren ikusteko". Beste aldetik, Haizeak, Kantineren Aurkezpenaren eguna iristeko gogotsu dagoela adierazi du, berak azaldu duenez, "aurtego jaieetatik gehien espero dudana da".

"Kantinera izatea errealitate bihurtutako ametsa da niretzat"

Haizea Sendón, 2019ko Alarde Publikoko Santiago konpainiako kantinera

Oroitzapenak biltzeko urtea

Oihana Picosok azaldu duenez, milaka oroitzapen dauzka kantinera izan zeneko urtearekin loturik. Sentimendu eta bizipen berriez beteriko urte hartan erabilitako abanikoak eta bestelako gauza pertsonalak gordeta dauzkan arren, oroitzapen gehienak buruan gordeirik gelditzen direla onartzen du.

Egun, teknologien garapenari esker, oroitzapenak beste era batera gordetzeko aukerak daude ere. Haizea Sendónek bere blog pertsonalaz baliatzen da bere bizitzako gertakariak biltzeko. "Blogak Bailarina con síndrome de down izena dauka" azaldu du Haizeak eta, amaren laguntzaz, kantinera bezala izandako bizipenak bertan biltzeko asmoa du. Orain arte jasotako opariak edo aurrera eramandako prestaketa lanen argazkiak ikusgai daude jada eta jai egun nagusien ostean bizitako esperientziak irakurri ahaliko dira bertan hemendik gutxira.

"Deskubrimendu bat izan zen niretzat alardea lehen aldiz barnetik bizitzea"

Oihana Picos, duela 20 urte kantinera izandakoa

Aholkuak

Haizea Sendónok sorpresa eta lehen esperientziez beteriko San Pedro eta San Martzial jaiak biziko ditu aurrean. Horretarako, gurasoak eramango ditu alboan uneoro. "Aurtengo sanmartzialak poztasunez gogoratu nahiko nituzke", azaldu du Santiago konpainiako 2019ko kantinerak. Oihanak, ordea, kantinera urteaz disfrutatzen aholku eman dio, orain arte aurreko urteetan egin bezala. Hortaz gain, hurrengo urteez disfrutatzen gonbidatu du Haizea, alarde honek jai alde ezberdinetatik bizitzeko eskaintzen duen aukera aprobetxatuz.